

ERASMUS edo Europar barrena ibiltzeko programa

Amaia Iza* & Tere Barrenetxea


ERASMUS izeneko programa Europako Komunitateak 1987/88 ikasturtean martxan jarritakoa da. 1992ko Merkatu Bakarra atarian izanik, unibertsitate-tituluen herrialde batetik besterako baliozkotasunaren auzia agertu da. Erronka honi erantzun egokia emate aldera pentsatutako saioa dugu ERASMUS programa. ERASMUSek jatorrizko unibertsitateetik at, atzerriko beste unibertsitate batean ikasturte bat edo ikasturte baten zati bat egiteko aukera eman nahi die ikasleei, jatorrizko unibertsitateak ikasketa horiek bere ikasketa-planen parte bezala hartuko dituela bermatuz.

Epe ertainean zientzilari, teknikari eta aditu "europarreko" talde homogenoa da Europako Komunitateak lortu nahi duena. Asmoa beraz, beste herrialdeetako hizkuntza, errealitate historiko, ekonomiko eta kulturala ezagutzearen on-

dorioz, Europako beharretatik abiatuta teknologia propioa garatzeko gaitasuna duten adituak sortzea da. Asmo horiek gauzatzeko joan daitezkeen, unibertsitateko ikasleen higikortasuna errazteko bideak jartzen ditu programak. Hauxe da bestalde, Europako Komunitateak arlo honetan sortu dituen programen artean arrakastarik handiena lortu duena.

Euskal Herriko Unibertsitatea hasieratik dago ERASMUS programaren barruan eta baita Baionako I.U.T. (Pabeko Unibertsitatea) eta Nafarroako Unibertsitatea ere. Programak jakintza-arlo guztiak hartzen ditu kontutan.

Programa honek bekak ditu ikasleen bidai gastuak eta beste gastu orokor batzuk ere (jatorrizko eta helburuko herrien bizitzaren kostuaren arteko diferentzia) estaltzeko; baina kopuruz ez dira handiak. Programaren diru-hornidura bere horretan mantendu den bitartean, eskaerak izugarri egin dute



gora eta ondorioz, ikasle bakoitzak jaso ohi duen ECU-kopurua gero eta txikiagoa da. Hala ere, asko dira programa hauetan parte hartzeko asmoa duten ikasleak; esperientzia pertsonal aberatsa izateaz gain, curriculuma jantzeko meritua bat dela ikusi bait dute.


Euskal Herriko Unibertsitateko datuak ditugu ondorengoak. Hauek dira programa martxan jarri zenetik atzerrian ikasten aritu diren bertako ikasleei buruzko datuak. Ez dira hemen kanpotik hona etorritakoenak jasotzen. Hauen kopurua, joandakoena baino % 17 txikiagoa dela besterik ez dugu esango.

ERASMUS programan parte hartu duten EHuko ikasleak

87-88 ikasturtea	11 ikasle
88-89 ikasturtea	31 ikasle
89-90 ikasturtea	51 ikasle
90-91 ikasturtea	83 ikasle
91-92 ikasturtea	164 ikasle
92-93 ikasturterako aurrikuspenak	240 ikasle

ECTS programa pilotua

Erasmus programak zenbait atal ditu bere baitan. Horien artean, bada interes berezia sortu duen azpiprograma bat: ECTS programa-pilotua hain zuzen. ECTS letrek European Credit Transfer System, hau da, Kreditu-Transferentziarako Sistema Europarra adierazten dute. Izenak dioenez,



dantza da beraz, oinarrian dagoena. Horregatik, ikasketa-planak eta ikastaroen iraupena desberdinak izanda ere, kredituen baliokidetzeta-sistemaren bidez, erakunde desberdinek aintzat hartzen dute elkar. Europako unibertsitateen arteko sare egonkorra lortu ahal izango dira bide honi jarraituz.

Baina programa honen berezitasuna ez da erakundeek duten erantzukizun eta paper garrantzitsua bakarrik. Araudi baten arabera kreditu-trukerako bide bat irekitzea litzateke azpimarratu beharreko beste puntua. Bide horretatik ebatzi nahi dira gerora egindako baliokidetzeta edo konbalidazioek sortzen dituzten oztopoak.

Bost jakintza-arlo aukeratu ziren probaldi honetarako: injinerutza mekanikoa, medikuntza, kimika, historia eta ekonomia/enpresa-zientziak.

Programan parte hartzeko deialdia egin zenean 254 erakundetako 464 es-

kaera jaso ziren bost arlo horietarako. Eskaera-kopuru altu honek garbi asko adierazten du programak izan duen harrera ona. 86 bakarrik hautatu ziren eta horien artean Euskal Herriko Unibertsitatea kimika-arloan eta Nafarroako Unibertsitatea injinerutzan. Hautapen hori Europako Unibertsitate entzutetsuenen taldean egotearen adierazle da.

Programaren arrakasta dela eta, erakunde asko dira sarea zabaltzeko gogoia erakutsi dutenak eta aurren hasierako gune hori zabaltzen hastea espero da.

Programan parte hartzeko, ikasleak ondorengo puntuak izan behar ditu gogoan:

* Programan sartuta dagoen fakultate bateko ikasle izatea.

* Bere jatorrizko unibertsitateko tasak ordaintzea. Helburuko unibertsitatean ez du gehigarririk ordaindu beharko.

* Atzerriko ikastaldiak ez du hila-bete baino gutxiago eta urtebete baino gehiago iraungo (nahiz eta bigarren urte bat unibertsitate berean edo beste batean egiteko aukera izan).

* Ikasleek bere jatorrizko herrietan bekarik edo laguntzarik jasotzen badute, ez dira etenda geratuko.

Ikasturte osoak 60 krediturako eskubidea ematen du. Hiruhilabete-ko egonaldian beraz, 20 kreditu eskura daitezke. Ikasleen ebaluazioa, helburuko unibertsitatean ohi bezala burutzen da.

Unibertsitate partehartzaileek ez dute hartzen dituzten ikasleei eskaintzeko ikastaro berezirik antolatu behar (hizkuntza egokitzapenerako ikastaroak dira honetan salbuespen). Programaren izpirituaren kontrako jokabidea litzateke hori. Unibertsitate bakoitzak bere ikasketa-planean dituen ikastaroak eskainiko ditu, hau da, bere ikasle propioei eskaintzen dizkien berak. Ikastaro hauek aurrez erabakitako kreditu-balio bat dute eta ikastaroa egin eta ebaluazioa gainditutakoan horixe da ikaslearen espedientera transferitzen dena. Transferentzia hauek aurretik ezarritako eta bi erakundeek onartutako sistema baten arabera egiten direnez, ikasleak ondorengo mailan jarraitzeko ez du, ez denborarik galdu, ez ikas-turterik errekuperatu behar.

Eskaerak, lehen ere esan dugunez, gora doaz Europa osoan bai parte hartzeko interesa duten erakundeen artean eta baita ikaslearen aldetik ere. Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek ere horrela ulertu dute datuek argi eta garbi erakusten digutenez.

OHARRA: Programa hauetan interesatua zauden ikaslea bazara, zure fakultatean ERASMUS programaren koordinatzailea zein den galde ezazu. Bere bidez ezagutu ditzakezu behar dituzun xehetasun guztiak.

* Amaia Izak 90/91 ikasturtean parte hartu zuen ECTS programan, ikastaldia Kent-eko Unibertsitatean (Canterbury-n) burutu zuen.